

# VI. Eleizbarrutirako Ebanjelizatze Egitasmoa (2022-2027)

GOIBURUA, IKUSPUNTUA,  
ERRONKAK,  
JARDUNBIDEAK eta  
EKINTZAK



Bilboko  
Elizbarrutia  
DIÓCESIS DE BILBAO

# Goiburua

“LA FUERZA DEL TESTIMONIO - LEKUAN LEKUKO”

*Autormen egingo dozue, Neugaz zagoze-eta (Jn 15, 27)*

# Ikuspuntua

Gure Eleizbarrutiak esker onez jaso dau Jesus Jaunaren deia alkarte **abegitsu biziak**, Barri Onaren pozaren adierazle diran, Jainkoaren esperientzia batera jarriz, bere **Erreinuaren etorrera irrikatzen daben eta, Espirituaren eraginez eta indarrez, gure gizartearen eraldaketan lagunduko daben alkarteak eraikitzeko.**

# Erronkak

## 1. ERRONKA “OSPATU”

**Eukaristia- eta samariar-alkartean bere atzetik jarraitzeko dei egiten deuskun Jesukristogaz buruz-buruko alkartzea izatearen barritasunera deitu.**

JARDUNBIDEAK	EKINTZAK
<b>1.1 JB</b> <b>Bakarka eta alkartean Jesukristogaz bat egiteko aukera barriak ekarriko deuskuezan ekimenak bultzatu.</b>	<p>1.1.a. Ibilbide pertsonaletara eta askotariko kultur errealidadeetara egokitu-tako tailerrak garatu espiritualtasuna lantzeko.</p> <p>1.1.b. Erretiroak, gogo-jardunak, topaketak, debozino herrikoirako ekitaldiak... eskaini eta otoitz lagungarriak prestatu familia, gaztetxo, gazte eta helduentzat.</p>
<b>1.2 JB</b> <b>Kristau espiritualtasunaren esperientziak sendotu.</b>	<p>1.2.a. Jainkoaren Hitzean sakontzeko taldeak eratu Pastoral Barruti guztietan.</p> <p>1.2.b. Pertsonak hezi akonpainamendu espirituala eskaini daien banaka eta taldean.</p> <p>1.2.c. Kultur jarduerak antolatu, eztabaidak komunikabide eta gizarte sareetan, bizitzaren alderdi transzendentean sakontzeko.</p>
<b>1.3 JB</b> <b>Eukaristian eta gainerako ospakizunetan parte hartzeko bideak proposatu, ospakizunak esanguratsu eta eraginkor eginez.</b>	<p>1.3.a. Hizkuntzak eta bitartekoak eguneratu Sakramentuen ospakizunetan (musika, sinboloak, adierazteko erak, bitarteko teknologikoak...), gure kristau bizitzan, Eukaristian parte hartzea funtsezko bihurtu daiten.</p> <p>1.3.b. Pertsonak hezi, eukaristietan, Hitzaren ospakizunetan eta Jaunaren Eguneko abade bako ospakizunetan liturgia sustatzaile izateko.</p> <p>1.3.c. Jaunaren Egunez Eukaristia ospatzerik ez dagoanean Jaunaren Eguneko abade bako ospakizunak egin, eta Hitzaren alkarte ospakizunak astegunez.</p>
<b>1.4 JB</b> <b>Gure pastoral eskaintzetan askotariko eleiz sentsibilitateak txertatzeko eta dalako proposamen horreek giza egoera aniztetera egokitze bideak jarri.</b>	<p>1.4.a. Partaidetzarako eremuak sortu gure eleiz aniztasuna ikusgai egiteko (familia izate barriak, etorkinak, sexu-identitateak, gazteen eremuetako joera barriak...)</p> <p>1.4.b. Heziketa-jardueren edo bestelakoen bidez, alkarte harrera hobea eta pastoral jarduerak martxan jartea bultzatu, aniztasunaren ikuspuntutik.</p> <p>1.4.c. Askotariko erlejino-sentsibilitateko pertsonen batzarrak antolatu, alkarrizketan jardun, alkar autortu eta batera lan egin daien.</p>

## 2. ERRONKA “IRAGARRI”

**Barri Ona gure artean txertatuta iragarteko bide barriak bultzatu, pertsoneri bizitzako aldi guztietan eta euren eremu esanguratsuetan lagun eginez.**

JARDUNBIDEAK	EKINTZAK
<p><b>2.1 JB</b> <b>Fedea adierazoteko eta helarazoteko era barriak sustatu gure gizarte kulturantzean.</b></p>	<p><b>2.1.a.</b> Eleizbarrutiaren ondare material eta immaterialak fedearen eta kulturaren arteko hartu-emonaren eta lehenengo iragarpenaren zerbitzura eskaintzen dituan aukerak arakatu.</p> <p><b>2.1.b.</b> Ekonomia, politika eta kultura eremuan jardunean diharduen gizon eta emakume fededunei lagun egin, gure alkarteetan holako agerpen publikoa sustatuz.</p>
<p><b>2.2 JB</b> <b>Gure pastoralgintza barritu, kristau sarbidearen direktorioan oinarrituta, fede sarbiderako prozesuak bultzatuz eta lehenengo iragarpena zainduz.</b></p>	<p><b>2.2.a.</b> Fede-zabalkunde eta katekesiaren esparru-egitasmoa garatu.</p> <p><b>2.2.b.</b> Fede-zabalkunde eta katekesiaren esparru-egitasmoa garatzeko gauza izango diran pastoral eragileak (katekistak, laguntzaileak, begiraleak...) hezi.</p> <p><b>2.2.c.</b> Gazte, familia, heldu eta etorkinei zuzendutako pastoralgintza lehenetsi.</p>
<p><b>2.3 JB</b> <b>Pastoral barrutien eta heziketa-eremuen arteko baterako lanerako eremuak sortu, inguru seguruetan, fedearen iragarpenerako prozesu barrituak garatzeko bide izan daitezcan.</b></p>	<p><b>2.3.a.</b> Ikastetxeen eta txertatuta dagozan pastoral barrutien arteko lotura estutu.</p> <p><b>2.3.b.</b> Ikastetxeen egitasmoetan espiritualtasuna lantzeko esperientziak txertatu, Jainkoagaz buruz buruko alkartzea izateko aukerak egon daitezcan.</p> <p><b>2.3.c.</b> Akonpainamendua eta heziketa - eta asoziazino-eremuetan jarduten daben pastoral eragileentzat.</p>
<p><b>2.4 JB</b> <b>Ahulezian dagozan pertsonen aldeko osoko akonpainamendua hobetu, kristau espiritualtasunari egokitutako berariazko proposamenak garatuz.</b></p>	<p><b>2.4.a.</b> Bizigiro, migrazino, kartzela, ahalmen-urritasun, nagusi... , pastoraltzak sendotu.</p> <p><b>2.4.b.</b> Ahulezian dagozan pertsoneri akonpainamendu espirituala emoteko taldeak sortu.</p> <p><b>2.4.c.</b> Gure entzuteko gaitasuna zabaldu, batez be bakardadez jantzitako egoeretan.</p>

### 3. ERRONKA “ZERBITZATU”

Sufritzen dagozan pertsonakazko norbere eta alkartearen konpromisoaren lekukotasun alaia emon gure bizigiroetan, egituren eraldaketan eta danona dan etxearen zaintza arduratsuan lagunduz.

JARDUNBIDEAK	EKINTZAK
<b>3.1 JB</b> <b>Pobretasuna eta bazterketa sortzen dabezan egoerei aurre egin.</b>	<p>3.1.a. Osasun, gizarte eta ekonomia krisiaren ondorio diran pobretasun eta bazterketazko egoera barriak ezagutu eta horreetan arreta jarri.</p> <p>3.1.b. Ahuleziako egoeran –bakardadea, gaixotasuna, gehiegikerien biktimak, dolua jasaten diharduenak, mendekotasunak, etorkin eta errefuxiatuak, behin-behineko lana...- dagozan pertsonen akonpainamendua eskaini.</p> <p>3.1.c. Justiziaren eta eskubideen aldeko ekimenak bultzatu, pobretasuna dakarren arrazoiei aurre egiteko.</p>
<b>3.2 JB</b> <b>Bihurtze ekologikoa eragin (<i>Laudato si</i>) gizarte-ingurumenaren aldeko justizia eta danona dan etxearen eta bertan bizi garanon zaintza bultzazeko.</b>	<p>3.2.a. Bihurtze ekologikoaren ikuspuntutik konprometituko gaituen jarduera pertsonal eta komunitarioak garatu: ondasunen kristau banaketa, kontsumo arduratsua, bidezko merkataritza, ekonomia solidarioa, e.a.</p> <p>3.2.b. Komunikaziorako bide barriak eratu arlo honetan doguzan proposamenak ezagutzera emateko.</p> <p>3.2.c. Gizarte erakunde eta mobimentuakazko lokarriak sendotu, danok batera guztion onaren sustapena bilatuz.</p>
<b>3.3 JB</b> <b>Kristau alkarte osoaren eta askotariko eragileen protagonismoa sendotu gizarte-karidade jardueraren garapenean.</b>	<p>3.3.a. Gizarte-karidade alderdia pastoral arlo guztietan txertatu.</p> <p>3.3.b. Kristau alkarte eta Caritas bata bestearen parte izatea sendotu.</p> <p>3.3.c. Ahulenen zerbitzura dagozan eleiz erakundearen arteko koordinazioa sendotu, Eleiza bereko kide garala agertzera emonez.</p>
<b>3.4 JB</b> <b>Gizarteagaz alkarrizketan jardun guztion ona bilatzeko konpromiso pertsonalaren eta kultur, heziketa erakundearen eta komunikabideen konpromisoaren bitartez.</b>	<p>3.4.a. Eleizbarrutiaren komunikazio-egitasmoa garatu eta gizarteratu.</p> <p>3.4.b. Gizarte alkarrizketarako mobimentu, foro eta mahaietan parte hartu.</p> <p>3.4.c. Eleizbarrutiko erakundearen (ikastetxeak, erakundeak eta pastoral barrutiak) egitasmoetan “<i>Laudato si</i>” proposamenak eta Garapen Jasangarrirako Helburuak txertatu.</p> <p>3.4.d. Eleizbarrutiaren kultur ondarearen heziketa, pastoral eta gizarte balioa ezagutzera emateko egitasmoa garatu.</p>

## 4. ERRONKA “ALKARTEA”

**Alkartasuna, partaidetza eta misinoa sustatu lekuko Eleizaren arlo guztietan, karisma eta ministerioen aniztasunean oinarritutako ardurakidetasun eraginkorra eraginez, laikotza eta batez be emakumearen partaidetza bultzatu.**

JARDUNBIDEAK	EKINTZAK
<p><b>4.1 JB</b> <b>Bateoaren eraginez dagokigun izaera bera kontuan hartuta, ardurakidetasuna, batez be emakumeena, gazteena eta etorkinena, sustatuko daben sinodo-seneko eremuak bultzatu.</b></p>	<p><b>4.1.a.</b> Ardurakidetasunaren inguruko egitasmoa prestatu eta garatu:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Aldizka gotzain kontseiluaren deialdietan parte hartu;</li> <li>2. Ekipo ministerialetan eta kurian txertatu;</li> <li>3. Eleizbarrutiko, bikaritzetako eta pastoral barrutietako ekintzen proposamen eta eraketan parte hartu.</li> <li>4. Pastoral mandatuak dabezan pertsoneri arreta eta akonpainamendua eskaini;</li> <li>5. Teologian eta beste hainbat jakintzagai garrantzitsutan goi ikasketak egitea sustatu;</li> <li>6. Eleizbarrutiko erakundeetan, askotariko jakintzagaien irakaskuntzan parte hartu.</li> </ol> <p><b>4.1.b.</b> Askotariko laiko ministerioak martxan jarri eta sustatu pastoraltzaren zerbitzura iragarpenaren, katekesiaren, heziketaren, karidade eta zuzentasunaren, liturgiaren, misinoen, ekonomia eta ondarearen arloan.</p> <p><b>4.1.c.</b> Parrokietako erreferenteen esperientzia eguneratu eta sendotu.</p>
<p><b>4.2 JB</b> <b>Bokazino pastoraltza sendoa hedatu biziera sekular, kontsakratu eta ministerialerako berriazko garapenakaz.</b></p>	<p><b>4.2.a.</b> Berriazko egitasmoaren garapenean konprometitutako norbanako eta taldeak identifikatu.</p> <p><b>4.2.b.</b> Askotariko bokazinoen (biziera sagaratua, abade, diakono eta laiko biziera) alkartzerako eremuak zabaldu.</p>
<p><b>4.3 JB</b> <b>Jarduera ebanjelizatzailearen aldeko ekonomia-jasangarritasun eta ardurakidetasuna sendotu.</b></p>	<p><b>4.3.a.</b> Eleizbarrutiaren Egitasmo Estrategiko Ekonomikoaren garapenean konprometitu:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. %100eko autofinantzatzera hurreratu.</li> <li>2. Alkarkutxaren erizpideak berrikusi.</li> <li>3. Eraikinak kudeatu, norbere beharizanak ezagutuz, eta erabilten ez dana behartsuen aldeko zerbitzuaren eta jasangarritasunaren araberrako erizpideak kudeatuz.</li> <li>4. Ardurakidetasuna garatu, familia edo banako helbideratzeak bultzatzeko egitaraua sustatuz.</li> <li>5. Ekonomia-kudeaketa koordinatu eta informatizatu gure pastoral barrutietan.</li> <li>6. Gardentasunean hazi Eleizbarrutiko eremu era erakunde guztietan.</li> </ol>
<p><b>4.4 JB</b> <b>Erabagiak hartzean, alkarte bereizketa sustatu.</b></p>	<p><b>4.4.a.</b> Geure burua alkarte bereizketan hezi, horretarako heziketa eta bitarteko egokiak eskainiz.</p> <p><b>4.4.b.</b> Erabagiak hartzeko eta parte hartzeko maila bateko edo besteko organoetan –Eleizbarrutiko parrokietan, PBetan (Pastoral Barrutia), erakundeetan-sentsibilitate-aniztasuna bermatu</p> <p><b>4.4.c.</b> Kontseiluak eta bereizketarako gainerako eremuak, informazinarako eta kontsultarako organo izateaz gainera, eztabaida-leku be izan daitezala.</p>



